

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko otsailaren 13a / 96. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Ipini dituzte plastikoak-eta batzeko edukiontzi horiak

UBANE MADERA

Esandakoa bete eta ipini dituzte edukiontzi horiak Aramaion, plastikoak-eta batzekoak. Guztira, 33 ipini dituzte, bai Ibarra bai eta gainerako auzoetan ere. Leku gehienetan, lehenagotik zaborra batzeko zehaztuta zeuden puntuetan ipini dituzte.

Zerbitzu Saileko zinegotzi Andres Osinagak jakinarazi digunez, beharraren arabera banatu dituzte edukiontziak. Hala, zenbait auzotan edukiontzi bakarria ipini badute ere, beste batzuetan gehiago ipini dituzte. Ibarri dagokionez, lehenagotik zaborra batzeko zehaztuta zeuden puntuetan ipini dituzte edukiontzi berriak.

Edozelan ere, oraindik xehe-tasun guztiak erabaki barik dituzte. Ikusten badute nonbaiten behar handiagoa dagoela, edukiontzi gehiago ipiniko dituztela adierazi digu Andres Osinaga zinegotziak.

Gaineratu digu espero dutela 15 egunean beteko direla edukiontziak; hortaz, hamabostean behin hustuko dituzte. Baina hori ere erabilerarekin ikusten joango dira. Gero, batutakoak



Lehenagotik zaborra batzeko zehaztutako puntuetan ipini dituzte edukiontziak.

Gasteizera eramango dituzte, Jungizena dagoen instalazio batera, birziklatzeko, hain zuzen ere.

Plastikozko ontziak, latak eta brick ontziak bota behar dira edukiontzi horietara.

EDUKIONTZI TXIKIAK OPARI

Bestalde, edukiontzi berri horiek erabiltzen ohitzen laguntzeko, Udalak ontzi txikiak banatuko

dizkie herritarrei, doan. Etxe bakoitzerako ontzi bana dago. Guztira, 700 bat eskatu dituzte; hala, oraingo etxeetarako izateaz gain, herrian egingo diren etxe berrietarako ere izango dira. hain zuzen, eskuratu nahi duenak udaletxera joan behar du, orain dela aste bete-edo etxean jaso duen bigarren postalarekin.

Lesionatuta dago Maider Unda, baina aurrera egingo du

U.M.

Bertan behera utzi behar izan du Maider Unda borrokalariak Polonian jokatu behar zuen nazioarteko txapelketa. Izan ere, belaunean min hartuta dabil. Grezian jokatu zuen txapelketan hartu zuen min, baina momentuan ez zion garrantzirik eman. Edozelan ere, aurrera egingo du.

Uste baino kolpe handiagoa hartu zuen Maider Unda borrokalariak Grezian. Kolpe haren ondorioz, orain, belauna handituta dauka. Kontatu digunez likidoz beteta

izan du, eta belauna ez da berera bueltatzen. Orkatila ere handitu zitzaion.

GELDI EGON BEHAR

Harrezkero, entrenatu barik dabil Maider Unda (bi aste dagoeneko), eta asper-asper eginda. Entrenatzen hasteko desiratzen dagoela esan digu. Baina geldi egon beharra dauka, Kiroletako Batzorde Nagusiko medikuek hala aginduta. Geldi egonez gero, aurrera egin ahal izateko moduan izango da.

ERRESONANTZIA

Astelehenean egin zioten belau- nean erresonantzia, Madrilen. Eta

albiste pozgarriak izan zituen. Izan ere, meniskoa eta lotailuak kalte- tu barik dauzkala esan zioten. Era berean, likidoa atera diotela esan zigun Maider Undak.

Edozelan ere, orain belauna berera bueltatu arte ezin dela entrenatzen hasi gaineratu zigun borrokalariak.

Kontuak kontu, Olinpiar Jokoa- k buruan ditu Oletako borroka- laria. Oso animoso dago, gaine- ra, kontu horrekin. Entrenatu ahal bezain laster hasiko da jokoetarako prestatzen.

Martxoan jokatuko du Gre- zia jokoetarako sailkatzeko kan- poraketa.

Hauteskunde-mahaietan egoteko zozketa

UBANE MADERA

Martxoaren 14ko hauteskun- deetan hauteskunde-mahai- tan egon behar duten aramaio- arren izenak zozketatuko dituzte datorren astelehenean, hilak 16. Osoko bilkura berezia egingo dute horretarako. 18:00etan hasiko da. Hautes- kundeetakoaz gain, bestelako gaiak ere landuko dituzte.

Guztira, 12 lagun izenak atera behar dituzte asteleheneko batzarrean. Izan ere, betiko moduan, Aramaion bi mahai izango dira, eta mahai bakoitze- ko sei lagun behar dira, gehi haien ordezkioak. Herri guztiek martxoaren 14tik 18ra arteko astia dute zozketa egiteko. Horren ondorioz, Aramaion erabaki dute osoko bilkura eguaztenean barik astelehenean egingo dutela. Beti- ko orduan izango da: 18:00etan.

Behin zozketa egin eta izenak atera eta gero, egokitu zaienei astean bertan bidaliko diete jakinarazpena etxera. Gero, epe jaki-

na izango da hauteskunde-ma- ko kide izan ezin duenak er- klamazioak egin ditzan. Be- Udaleko idazkariak jakinarazi- digu oraindik ez dietela esan- izango den hori.

BESTELAKO GAIAK

Bestalde, esandakoz gain, hautes- telako gaiak ere landuko dituzte asteleheneko batzarrean. Besta- ak beste, dirulaguntza eskatu- dezente dute aztertzeko zime- tziek. Esaterako, Erretiratu- Egunerako eta Emakumeen A- rako dirulaguntzak eskatu dituz- te; parrokiaren konponketa bat- egiteko laguntza eskatera eta aztertu behar dute; baita Ma- der Unda borrokalariak egiten a- na ere. Horrez gainera, presen- senitartekoak bisitatzeko lagun- tza ere eskatu dute.

Eta bestelakoan artean, a- letxea egokitzeko lanak behar- gai izango dira, Arabako Al- Aldundiari horren berri esan- behar diote-eta.

Datorren hilean hasiko du- lanok egiten.

LABUR

Elkarrik sinadurak batuko ditu bihar, zapatua, eguerdian udaletxepean

Bihar, zapatua, Elkarriko kideak udaletxepean izango dira. Konferentziaren aldeko aramaioarren sinadurak eta dirulaguntzak batzen. 11:30ean hasi eta pare bat orduz egongo dira Aramaion. Guztira, 100.000 sinadura batu nahi du Elkarrik, eta dagoeneko 50.000 batu dituzte.

Aramaioarrek Kanpezun izango den bertso saioan parte hartuko dute bihar

Bihar, zapatua, 20:00etan hasiko da bertso saioa Kanpezun. Baita, lau bertsolariak jardungo dute, aramaioarrek tartean. Agirrek, Arriolabengoak, Izar Mendigurenek eta Iñaki Viñasa Aurkezle eta gai-jartzaile lanak, berriz, Oihane Perek egongo dira. Bertso saioa Uxerri elkartearen izango da.

Aramaioaren antzinako kontuen gaineko programa izango da GOITBn

Otsailaren 17an, martitzena, Aramaioaren gaineko programari hasiera emango da GOITBn, *Iragana Gogoratu*z saioan. Pako Izagak erretiratuaren etxearen gaineko kontuak azalduko ditu. Besteak beste, Benito Oarrekin ibiltzen zeneko kontuak izango ditu hizpidea. Gero, erretiratuaren etxean dagoen hauspo handi eta berezi erakutsiko dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

Haur-eskola zerbitzua abiarazteko asmoa dute

Herri guztietan haur-eskola zerbitzua izateko ekimena abiarazi du Partzuergoak. Ibarreko zenbait herri bat egin dute ekimenarekin—Oñatik, adibidez—, eta gauza bera egin nahi du Aramaiok. Hain zuzen ere, 2005-2006 ikasturterako haur-eskolan izena emateko matrikula zabaltzeko asmoa dute San Martin Eskolakoeak. Hau da, 0tik 2 urtera arteko umeendako zerbitzua ipini nahi dute bi urte barru. Eskolako zuzendari Paulino Ibañek *Goiena.net*-i adierazi dionez,

orain, eskola eta Udala haur-eskola non ipini aztertzen dabilta. Izan ere, gaur egungo eskolaren barruan edo kanpoan, bietan kokatzeko aukera dago. Era berean, 2004an haur-eskolaren planoak landuko dituzte eta beharrezko dirulaguntzak batzen hasiko dira. Eta behin haur-eskola non ipini erabakitzen dutenean, halako kasuetan jarraitu beharrezko tramitazioarekin hasiko dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzan.



Eskolakoen asmoa da bi urte barru zabaltzea matrikulazio kanpaina.



Pozik Santa Ageda egunarekin

Zapatuan, Santa Ageda eskean giro ona izan zutela kontatu digute abesbatzako kideek. Eguzkierripan eta kalean ibili ziren koplak kantatzen, eta jende dezente egin zuen bat ekimenarekin. Batutakoari dagokionez, iazkoaren antzerako kopurua dela esan digu abesbatzako zuzendari Juan Jose Polek. Eta betiko moduan, Caritasi emango diotela erdia, herriko beharretarako.

BOTE PRONTOAN/ Roberto Lasaga · Esne-saltzailea

“Artizar Latzako kortan ez da aldatu ia ezer azken urteotan, lan egiteko modua bakarrik”

Esnea modu tradizionalan landu eta saltzen duen baserri gutxi geratzen dira. Baina Aramaion badago halako bat: Artizar Latza izeneko korta, hain zuzen ere. Azkoagan dago. Eta Latza baserriko Roberto, Jose Luis eta Esteban Lasagak jarduten dute hango behi mordoak zaintzen eta jezten:

Esnedun tradizionalak zarete la esan didate...

Bai. Azken batean, animaliek jaten dutena betikoa bada, tradizionala da. Gure kortan ez da aldatu ia ezer, lan egiteko modua bakarrik. Orain makina gehiago dago. Baina, bestela, belarra-eta jaten segitzen dute behiek. Hortaz, uste dut tradizionalak gairela, bai. **Zenbat behi dituzue? Zenbat esne ematen dute?**

Orain, 80 bat behiren esnea batzen gabilta. Guztira, 160 bat buru ditugu. Batzuk kumeak edukitzekotan daude eta txahalak ere baditugu... Gutxi gorabehera 30 litro ateratzen ditugu egunean. Ondo dago. **Zela komertzializatzen duzue?** Gurelesako bazkide gara gu, eta Gurelesak Iparlati saltzen dio gure produktioa. **Partikularrek ezin dute erosi?** Bai, auzokoak eta Aramaiokoak



etortzen dira. Halako esnea gustuko dutenak etortzen dira. **Baserriarrek salatzen dute ez dutela behar bezala kobratzen. Zein da zeuen egoera?** Uste dut Lehen Sektore guztian gertatzen dela gauza bera: ez dela pagatzen produktuak balio duena. Esnearen gainean argitaratu berri duten ikerketa batek dio pagatzen dabiltzala guri ateratzea kostatzen zaigun kopuru bera. Dirulaguntzek lagunduta bizi gara. Orain dela 20 urteko prezioekin gabiltza, eta dena igo da (pentsuak, makinak...), baina esnea ez. Gainera, esnea guri ez digute ganoraz pagatzen, baina azalera handiko saltegietan esneak balio du. Hortaz, hor nonbait geratzen da diru hori. **Orduan, zelako etorkizuna ikusten diozu zeuen lanbideari?** Beltza, oso beltza. Gauza bat

ganoraz ez denean pagatzen, epe luzera ez dauka gauza onik. Gure lanbidean jarduteko lehenengo gustatu egin behar zaizu, eta, hala ere, lotua da; gazteek ez dute nahi halako lanik. Ondo joanda zaila da halako lan baten hastea, eta, txarto badoa, hona ez dator inor. Ikusten da Aramaion zer pasatzen dabilen: esne-behiak dituen gazte bakarrak geu gara. **Zailtasunak zailtasun, zein sekretu daukazu Artizarren esne ona lortzeko? Abestu egiten diezue behiei, ala?** Musika ipintzen diegu batzeko orduan. (Barreak). Baina uste dut sekretua dela jaten ondo ematea, eta batzeko orduan garbitasunarekin-eta ibiltzea. Edan egin behar den produktua da, eta zaindu egin behar da. **Etxean dagoenari zein gomen-dio emango zenioke esnea erosteko orduan?**

Gauza ona pagatu egin behar dela. Bai esnea baita beste edozein produktu ere. 0,24 euroko esnea erosten duenak uste dut badakiela hori dela esnea. Esnea, gutxienez, 0,54 eurotik gora ordaindu behar da esnea izateko. Behi zoroekin-eta larritzen direnek erostetik egitera doazenean gogoratu egin beharko lituzkete halakoak.

“Gutxienez, 0,54 eurotik gora erosi behar da esnea, erosten dena esnea izateko”

“Gauza merkeak merke eginda daudela gogoratu beharko luke jendeak”

OHARRAK

BAÑERAKO TALDEEN EMAITZAK

Aspaldiko partez, neskek irabazi egin zuten, 3-0, Ekialderen kontra. Ea, bada, hemendik aurrera zorte hobea duten eta halako emaitza gehiago ekartzen dituzten. Bihar, Francisco de Vitoria izango dute aurrez aurre, 12:00etan, kanpoan. Mutilei dagokionez, haiek ere irabazi egin zuten, alde handiarekin, gainera: 0-10. Bihar etxean jokatu dute, La Milagrosaren kontra.

TORTURAREN AURKA

Gaur, barikua, 18:30ean, torturaren aurkako kale bilkura izango da. Biribilunean egingo dute.

ZINEMA, BARIKUAN

Gaur, barikua, hasiko dira barikuetako zinema emanaldiekin. Ron Howard estatubatuarraren *Una mente maravillosa* (A beautiful mind) filma emango dute. 22:00etan hasiko da.

ZINEMA, DOMEKAN

Canguro Jack filma emango dute domekan. Abenturan eta komedian oinarritutako filma da.